Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

1

# EZ OHIKO eta PREMIAZKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2008IPLE0008
**Eguna:** 2008-09-19
**Ordua:** 12:00-13:00
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea EA
- Juan Joxe Uranga Mendiburu EA
- Imanol Lizarralde Marín EA
- Eloy Bazan Bazan EA
- Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ/PNV
- Mª Jesús Arruabarrena Izagirre EAJ/PNV
- Jesús Fontal García EAJ/PNV
- Carlos de la Peña Hornés EB-B
- David Franco Chavale EB-B
- Jose Angel Sanchez Gallardo PSE-EE
- Jose Manuel Herzog de Bustos PP

**Bertaratu ez direnak**

-

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **981/2008 Dekretua berrestea, premiazko deialdia egiteko.** | 1 | Aprobación del Decreto 981/2008 para la convocatoria de urgencia. |
| **Plan Bereziaren –Ergobia Ibilbidea 9- hirigintzarako jarduketa-unitatearen Plan Bereziaren behin betiko onarpena.** | 2 | Aprobación definitiva del Plan Especial referido a la A.I.U. 9 –Ergobia Ibilbidea. |
| **Astigarragako Hiri antolamendurako Plan Orokorraren Testu Bateratua onartzeko proposamena.** | 3 | Propuesta para aprobación del Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga. |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1.- 981/2008 Dekretua berrestea, premiazko deialdia egiteko.**

Irailaren 18an alkateak emandako 981/2008 Dekretuaren azapena egin du Alkatetzak; dekretu horren bitartez, Ez Ohiko Osoko Bilkuraren ezohiko eta premiazko deialdia irailaren 19ko 12:00etara aurreratu da, honako hauek onartzeko:
1.- Premiazko deialdirako 981/2008 Dekretuaren Onarpena.
2.- Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Testu Bateratua onartzeko proposamena.
3.- Ergobia Ibilbidea 9- hirigintzarako jarduketa-unitatearen Plan Berezia behin betiko onartzea.

Premia honako honetan oinarritzen da: Lurzoruaren Euskal Legean aurreikusitako iragankortasuna aplikatzeko epea irailaren 20an amaitzen da, eta dagoeneko hitzarmenak badaudenez, data hori baino lehenago konpondu behar dira, bestela hirigintzako hitzarmenak berriz ere negoziatu beharko baitira, eta egoera horretan, horrek Astigarragako interes orokorrak nabarmen kaltetuko bailituzke.

981/2008 Dekretuak eragindako premiazkotasunaren berrespena bozkatu ondoren, onartu egin da, emaitza honako hau izan baita:
Aldeko botoak: 8 (EAk 4, EAJ/PNVk 3, PPk 1)
Kontrako botoak: 3 (EB-Bk 2, PSE-EEk 1)

**1.- Aprobación del Decreto 981/2008, para la convocatoria de urgencia.**

La Alcaldía expone el decreto de Alcaldía 981/2008 de fecha 18 de setiembre por el que anticipa la convocatoria extraordinaria y urgente del Pleno Extraordinario para el 19 de setiembre a las 12:00, con objeto de abordar la aprobación de los siguientes puntos :
1.- Aprobación del Decreto 981/2008 para la convocatoria de urgencia.
2.- Propuesta para aprobación del Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.
3.- Aprobación definitiva del Plan Especial referido a la A.I.U. 9 Ergobia Ibilbidea.

Se fundamenta la urgencia en que el 20 de setiembre finaliza el plazo para la aplicación de la transitoriedad prevista en la Ley del Suelo Vasca y la existencia de convenios ya existentes requiere que sean resueltos antes de esa fecha, dado que sino se deberían renogociar nuevamente los convenios urbanísticos que en esta coyuntura perjudicarían notablemente los intereses generales de astigarraga.

Sometida a votación la ratificación de la urgencia motivada en el Decreto 981/2008, se aprueba al producirse el siguiente resultado:
Votos a favor: 8(4 EA,3EAJ/PNV,1PP).
Votos en contra: 3 (2 EB-B,1 PSE-EE)

**2.- Astigarragako Hiri antolamendurako Plan Orokorraren Testu Bateratua**

**2.- Propuesta para aprobación del Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.**

**onartzeko proposamena.**
Alkateak Hirigintza Batzordean irizpena aurkeztu du, 2008ko irailaren 18an. Irizpen horretan honako erabaki hauek hartzea Osoko Bilkuraren esku jarri da:

Lehena.- 2008ko irailaren 15ean egindako txosten tekniko-juridikoa -Ramon Urangak eta Nekane Azarolak idatzia- berrestea.

Bigarrena.- 2008ko irailaren 15ean egindako txosten tekniko-juridikoa betetzearen baldintzapean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Testu Bateratua onartzea.

Hirugarrena.- Txosten hori jendaurrean ipintzea hilabeteko epean.

Hirigintza Batzordeko lehendakariak honako hau adierazi du: hainbat Informazio Batzar iragarri direla, eta horietan, Foru Aldundiak eskatutako testu bateratuak jasotako alderdi guztiak aurkeztu eta aztertu direla.
Carlos de la Peña zinegotziak gogorarazi duenez, Batzordean egin zen eta irizpenean jasotzen ez den zehaztasuna jaso behar da, hau da, honako hau gehitzea: Putzuetari dagokion zatia bertan behera uztea.
Zehaztasun hori Osoko Bilkuran onartu da, irizpena sartu da, bozkatu egin da, eta honako hauek izan dira bozketaren emaitzak:

Aldeko botoak: 8 (EAk 4, EAJ/PNVk 3, PPk 1)
Kontrako botoak: 3 (EB-Bk 2, PSE-EEk 1)

Irizpena onartu da.
Botoaren azalpenean:
1.- Jose Manuel Herzog PPko zinegotziak urez bete daitezkeen Udalerriko hainbat eremuen aurreikuspenaren xehetasuna jasotzeko eskatu du.
2.- Jose Angel Sánchez PSE-EEko zinegotziak honako hau adierazi du:

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de urbanismo de fecha 18 de setiembre, por el que se somete al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Ratificar el informe técnico-jurídico- redactado por Ramon Uranga y Nekane Azarola- jurídico realizado con fecha 15 de septiembre de 2008.

Segundo.- Aprobar el Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana, condicionado al cumplimiento del informe técnico-jurídico realizado con fecha 15 de septiembre de 2008.

Tercero.- Someter a exposición al público el documento, dureante el plazo de un mes.

El presidente de la Comisión de Urbanismo expone que se han convocados distintas Comisiones Informativas donde se ha presentado, y analizados todos los aspectos que recogen el texto refundido solicitado por la Diputación Foral.
El concejal Carlos de la Peña recuerda que debe recogerse la matización realizada en Comisión, y que no se recoge en el dictamen, cual es el añadir: dejar en suspenso la parte referida a Putzueta.
Esta matización es aceptada por el Pleno y se incorpora al dictamen que es sometido a votación, produciéndose el siguiente resultado:

Votos a favor: 8(4 EA,3EAJ/PNV,1PP).
Votos en contra: 3 (2 EB-B,1 PSE-EE)

El dictamen es aprobado.
En la explicación de voto:
1.- El concejal del PP Jose Manuel Herzog, solicita que se recoja el detalle de la previsión de zonas inundables para distintas áreal del Municipio.
2.- el concejal del PSE-EE Jose Angel

hainbat arrazoi direla-eta eman duela ezezko botoa, besteak beste: ekipamenduen eskasia dagoelako, Aholku-batzordearen plangintzaren deialdirik ez delako egin, Ikastolaren mozio onartu bat bazegoelako, eta lurzoru-erreserbei buruz hartutako konpromisoa ez delako konpontzen,..

3.- Carlos de la Peña zinegotziak honako arrazoi hauengatik eman duela ezezko botoa adierazi du:

1.- Batez ere Ergobian jasotako eraikuntza-profilak gehiegizkoak direla iruditzen zaiolako.
2.- 1.200 etxebizitza aurreikusten direlako, kopuru oso handia.
3.- Plan Nagusiarekin ez dagoelako ados, Arau Subsidiarioekin bat ez datorrela iruditzen zaiolako, eta kontrajartzen diren hainbat alderdi daudelako Lurzoruaren Legeko 4. eta 5. xedapen iragankorren aplikazioan.
4.- Plan nagusi horretan garatutako partaidetza-prozesuaren berri ez duelako izan.
5.- Zerbitzu gehiago aurreikusi behar direlako.
6.- Arkitekto aholkulariak ez lukeelako horren berri eman behar.

Horren ondoren, Joxi Uranga herritarrari eman dio hitza Alkateak, eta Astigarragako ezker abertzalea Plan Nagusiaren aurka dagoela esan du horrek, honako arrazoi hauengatik, besteak beste: herritarren partaidetza-erakustoki batean sostengatu zelako Plana, etxebizitzaren eta zerbitzuen arteko desoreka dagoelako, etxebizitzak eraikitzearen alde, eraikin berriak garaiegiak direlako, hezkuntzarako lurzoru-erreserba ez delako konpontzen, AHTren aurreikuspena jasotzen delako, nahiz eta guztiok dakigunez, herritarrei kontsultara deituko balitzaie, ez litzateke aurreikuspen hori onartuko, udalerri bateko gobernuak onartu duelako, nahiz

Sánchez señala que ha votado en contra por distintas razones, entre otras:existen déficit de equipamientos,no se ha convocado el consejo asesor de planeamiento, había una moción de la ikastola ya aprobada y no se resuelve el compromiso adoptado de reserva de suelo, hay denuncias en curso,..

3.- el concejal Carlos de la Peña manifiesta que ha votado en contra por las siguientes razones:

1.- Por los perfiles edificatorios recogidos principalmente en Ergobia que entiende que son excesivos.
2.- Porque se preveen 1.200 viviendas cifra muy alta.
3.- No está de acuerdo con el P.G. y entiende que contradice las NNSS., y hay aspectos contradictorios en la aplicación de las disposiciones transitorias 4ª y 5ª de la Ley del Suelo.
4.- No ha tenido conocimento del procese de participación desarrollado en este P.G.
5.- Porque hay que preveer más servicios.
6.- Porque no debería informar el arquitecto asesor.

A continuación el Alcalde otorga la palabra al vecino Joxi Uranga quien señala que la izquierda abertzale de Astigarraga rechaza el P.G, entre otras, por las siguientes razones: El Plan se apoyó en un escaparate de participación ciudadana,hay desequilibrio entre vivienda y servicios a favor de construcción de viviendas,las alturas de los nuevos edificios es excesiva,no se resuelve la reserva de suelo para educación,se recoge la previsión del TAV cuando se sabe que si convocase una consulta no se aprobaría,la aprueba un gobierno municipal a sabiendas que si se hubiese respetado la voluntad popular en las últimas elecciones municipales este Plan no se hubiese aprobado.

Interviene la concejal de EAJ/PNV

eta bazekien azken hauteskundeetako herritarren nahia errespetatuko balitz, Plan hori ez litzatekeela onartuko.

Zorione Etxezarraga EAJ/PNVko zinegotziak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Astigarragako Plan Nagusiak potentzialtasun handia duela, datozen 8 urteetan gauzatuko dela, eta zerbitzu eta ekipamendu guztiak planifikatu dituztenei honako hau gogorarazi die: hala eta guztiz ere, zenbait arlotan (esaterako, hezkuntzan) udalak egindako aurreikuspenez gain, hezkuntza-zerbitzuen egikaritzea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailburuordetzari dagokiola.

Alkateak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Aldundiari igorritako Testu Bateratu onartua azaldu dela, hainbat Hirigintza Batzordetan aztertu dela, eta Plan Nagusia oso onuragarria dela Astigarragako Udalerriko interesetarako, Plan horretan aurreikusten denez, babestutako eta tasatutako etxebizitzen kopuruak oso handiak diren leku batean etxebizitzak eraikiko direla, ekipamendu garrantzitsuak gauzatuko direla bermatzen dela

Zorione Etxezarraga, quien señala que el Plan General de Astigarraga tiene una gran potencialidad y que se irá ejecutando en los próximos 8 años y para los que han planificado los distintos servicios y equipamientos recordando no obstante que además de las previsiones municipales en materias, como educación, las ejecuciones de los servicios educacionales corresponde a la Consejería de Educación del Gobierno Vasco.

Interviene el Alcalde señalando que el Texto Refundido aprobado que se remite a Diputación, ha sido expuesto, analizado en distintas Comsiones de Urbanismo y que es un Plan General muy favorable a los intereses generales del Municipio de Astigarraga en la que se preve la construcción de viviendas donde las cifras de vivienda protegida y tasadas son muy altas, se garantiza la realización de fuertes equipamientos, destacando la nueva Casa de Cultura,zonas de equipamiento, zonas verdes, plazas nuevas, plazas de aparcamiento nuevas, se ordena la previsión de desarrollo industrial,..,lo que configura este Plan como un instrumento de planificación para que el desarrollo futuro de Astigarraga se haga de modo ordenado y planificado.

**3.- <u>Plan Bereziaren –Ergobia Ibilbidea 9- hirigintzarako jarduketa-unitatearen Plan Bereziaren behin betiko onarpena.</u>**

Alkateak Hirigintza Batzordearen 2008ko irailaren 18ko irizpena aurkeztu du. Irizpen horretan Osoko Bilkuraren esku jarri da honako erabaki hauek hartzea:

Lehena.- Juan Ignacio Izeta eta Jon Urangak 2008ko irailaren 17ko datarekin idatzitako tekniko-juridiko txostena berreztea.

Bigarrena.- Gailur Alde, S.L. enpresak

**3.- <u>Aprobación definitiva del Plan Especial referido a la A.I.U. 9 –Ergobia Ibilbidea.</u>**

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de urbanismo de fecha 18 de setiembre, por el que se somete al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Ratificar el informe técnico-jurídico –redactado por Juan Ignacio Izeta y Jon Uranga Etxabe- con fecha 17 de septiembre de 2008.

aurkeztutako iradokizuna partzialki onartzea txosten tekniko-juridikoaren arabera.

Segundo.- Estimar parcialmente la alegación presentada por Gailur Alde, S.L. en base al informe técnico-jurídico arriba mencionado.

Hirugarrena.- Iradokizuna aurkeztu dutenei erabaki honen berri ematea.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a los alegantes.

Idazkari-kontuhartzaileak eskatu du hitza, eta honako hau adierazten duela jakinarazi du:
Plan Berezia onartzeko proposamenari buruzko oharpena, eta 2008-7-10 Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez honako hau erabaki zuela adierazi du:

".- Hirigintza Batzordeak irizpena eman baino lehen, hirigintzako aholkularitza juridikoaren nahitaezko izapidea gaineratzea, organo eskudunari honako hauek BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA EGITEKO"

Solicita la palabra el Secretario-Interventor quien informa que formula Reparo en relación a la propuesta de aprobación del Plan Especial, señalando que la Junta de Gobierno Local 10-7-2008, acordó, por unanimidad:

".- La incorporación de trámite preceptivo de la asesoría jurídica de urbanismo, previo al dictamen de la Comisión de Urbanismo, para la formulación de PROPUESTAS DE APROBACIÓN DEFINITIVA al órgano competente".

Gaurko ez-ohiko eta premiazko osoko bilkuran aurkeztu da "ERGOBIA IBILBIDEA" 09- HIRIGINTZAKO JARDUKETA UNITATEAREN HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA BEHIN BETIKO ONARTZEKO proposamena, eta izapidetutako espedientean honako hauek ondorioztatu dira:

Al Pleno de extraordinario y de urgencia de hoy se eleva la propuesta de APROBACION DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACION URBANA A.I.U. 09 "ERGOBIA IBILBIDEA", y en el expediente tramitado se observa:

A).- Espedientean ez dela erantsi hirigintzako aholkularitza juridikoaren nahitaezko txostenaren izapidea. Horren ordez, Plan Nagusia idatzi duen taldearen txosten juridikoa erantsi da.

A).- Que no se ha incorporado en el expediente el trámite preceptivo del informe de la asesoría jurídica de urbanismo. En su lugar, se aporta un informe jurídico del equipo redactor del Plan General.

Izapide hori ez eransteak, Tokiko Gobernuaren Batzordearen erabakiari ez eustea esan nahi du. Osoko Bilkura subiranoa da, eta kasu honetan izapide hori ez eranstea xedatu badu, bere erabakia izango da. Nire egitekoa izapide hori ez dela bete jakinaraztea da.

Esta omisión supone que se incumple un acuerdo de la Junta de Gobierno Local que tiene por objeto garantizar la legalidad del acuerdo. El Pleno es soberano y si está dispuesto a obviarlo en este caso, su decisión será. Mi función es informar de que dicho trámite no se ha cumplimentado.

Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Eta beraz, irizpena onartzeko erabakia hartu nahi bada, **Osoko Bilkuran erabaki beharko da aldez aurretik:**

De modo que si se quiere adoptar el acuerdo de aprobación de dictamen **debería acordarse previamente por el Pleno:**

**Kasu honetarako, balioeste juridikorako txostena igortzea derrigorrezkoa den ala ez.**

**La no preceptividad de la emisión de informe de validación jurídica para este caso.**

Juan Joxe Uranga Hirigintza Batzordeko lehendakariak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Ergobiako Plan Berezia abuztuan aurkeztu zela, aholkulari juridikoa oporretan zegoela, eta beraz, Plan Berezia idatzi zuen taldeari (aholkularitza juridikoa ere barne hartzen du talde horrek) txosten tekniko eta juridikoak emateko ardura eman zitzaiola, irizpen hori emateko gauzatu diren informazio-batzar guztietan talde horrek zuzenean azaldu duena bezala.

Interviene el Presidente de la Comisión de Urbanismo Juan Joxe Uranga quien señala que el Plan Especial de Ergobia se presentó en agosto y que la asesora jurídica estaba de vacaciones por lo que se encomendó al equipo redactor del Plan General que incluye asesoría jurídica la emisión de los informes técnicos y jurídicos, tal y como han sido expuestos directamente por ellos en las distintas comisiones informativas que se han realizado para la emisión de este dictamen.

Horren ondoren, eta alkatearen Idazkari kontuhartzaileak adierazitako oharpenarekin bat eginez, alkateak honako proposamen hau bozkatzea eskatu du:

A continuación y en consonancia con el reparo expuesto por el Secretario-Interventor el Alcalde someta a votación la siguiente propuesta:

**Kasu honetarako, balioeste juridikorako txostena igortzea derrigorrezkoa den ala ez.**

**La no preceptividad de la emisión de informe de validación jurídica para este caso.**

Proposamena onartu da, emaitzak honako hauek izan baitira:

La propuesta es aprobada al producirse el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 7 (4 EAk,3 EAJ/PNVk)
Kontrako botoak: 3 (EB-Bk 2, PSE-EEk 1)
Abstentzio-botoa: 1 PPk

Votos a favor: 7(4 EA,3EAJ/PNV,).
Votos en contra: 3 (2 EB-B,1 PSE-EE)
Votos de abstención: 1 PP

Osoko Bilkurak kasu honetarako balioeste juridikorako txostena igortzea derrigorrezkoa ez dela onartu ondoren, alkateak Hirigintza Batzordearen irizpena bozkatzea eskatu du, honako erabaki hauek hartzea proposatzen duen irizpidea, hain zuzen ere:

Una vez aceptada por el Pleno la no preceptividad de la emisión de informe de validación jurídica para este caso, el Alcalde somete a votación el dictamen de la Comisión de Urbanismo por el que se propone la adopción de los siguientes

acuerdos:

**Bozkatu ondoren, irizpena onartu da, bozketaren emaitzak honako hauek izan baitira:**
Aldeko botoak: 8 (EAk 4, EAJ/PNVk 3, PPk 1)
Kontrako botoak: 3 (EB-Bk 2, PSE-EEk 1)

Bozketaren azalpenenean, honako hauek adierazi dira:
.- Carlos de la Peña EB-Bko zinegotziak honako hau esan du: zentzuzkoena informazio horren berri aholkularitza juridikoak berak ematea zela, ekintzen kontra jokatzen dela, eta Plan Bereziari dagokionez, hobekuntzak sartu direla, baina hala ere, aurreko puntuan adierazitako hainbat alderditan irizpenaren aurkako botoa ematea berresten bada ere, alkatearen mintzaldiak bitxiak direla, hitz egiten duen lekuaren arabera ezberdinak baitira. Horrez gain, hitzarmenak alderdi oso positiboak dituela ere adierazi du, esaterako hirigintza-aprobetxamenduak, udaleko kontuak eta inbertsioak hobetzeko iturriak izango baitira.

.- Jose Angel Sánchez PSE-EEko zinegotziak egoera horretara iristea ez dela egokia adierazi du, hau da, teknikaria oporretan dagoen aldi berean informazioaren berri ematea premiazko izatea. 2. puntuan azaldutako argudiei heltzen zatzaizkio.
.- Jose Manuel Herzog PPko zinegotziak honako arrazoi hau eman du abstentzio-botoa eman izanagatik oharpenaren bozketan: seguru dagoela hirigintzako aholkularitza juridikoaren txostena egin izan balitz, txotena idatzi zuenaren ildo berekoa izango litzatekeela. Bestalde, Astigarragako Udalerrirako onuragarria izango dela uste duelako eman duela Plan Bereziaren aldeko botoa.

**Sometido a votación el dictamen es aprobado, al obtenerse el siguiente resultado:**
Votos a favor: 8(4 EA,3EAJ/PNV,1 PP).
Votos en contra: 3 (2 EB-B,1 PSE-EE)

Dentro de la explicación de voto señalan:
.- Por el concejal de EB-B Carlos de la Peña señala lo lógico es que se hubiera informado por la propia asesoría jurídica,que se va contra los propios actos y que en lo relativo al P.E. se han incluído mejoras , no obstante hay aspectos ya señalados en el punto anterior que ratifican la postura del voto en contra del dictamen, señala que le resultan curiosos los discursos del alcalde que son distintos según donde está. Señala que el convenio tiene aspectos muy positivos como los aprovechamientos urbanísticos que serán fuentes para sanear las cuentas municipales y para mejorar inversiones.

.- Por el concejal del PSE-EE Jose Angel Sánchez señala que no se tiene que llegar a esa situación en la que convergen las vacaciones de la técnico municipal y la premura de tiempo para informar. Se remite a los argumentos expuestos en el punto 2.
.- Por el concejal del PP Jose Manuel Herzog se señala que se ha abstenido en la votación del reparo dado que tiene la convicción que si se hubieses hecho el informe de la asesoría jurídica de urbanismo iría en la misma línea que la realizada por el equipo redactor. En lo relativo al Plan Especial ha votado a favor por considerarlo favorable al Municipio de Astigarraga.

.- El Presidente de la Comisión de Urbanismo interviene señalando que la

.- Hirigintza Batzordeko lehendakariak hitza hartu du, eta honako hau esan du: Ergobia Ibilbidea 9- hirigintzarako jarduketa-unitatearen Plan Berezia Astigarragako Udalerriari mesede handia egiten dion erabakia dela, sustatzaileak sinatutako hitzarmenari estaldura ematen diola, eta gainera, ekipamendu eta zerbitzu multzo oso bat jasotzen duela hitzarmen horrek, eta horiek Osoko Bilkura honetan onartzen ez badira, HItzarmen hori berrikusi beharko dela. Horrez gain, honako hau ere esan du: 99-2003 legegintzaldian sinatutako hitzarmena baino askoz ere hobea dela aipatutako hitzarmen hori, eta bi hitzarmen horiek alderatu ditu, besteak beste, honako hauek azpimarratuz:
.- Etxebizitza-arloan: aurreko legegintzaldikoak 625 etxebizitza barne hartzen zituen, horietako 425 libreak, eta 200 etxebizitza publiko eraikitzeko, Udalari lursail bat ematen zitzaion.
Oraingo hitzarmenean 800 etxebizitza aurreikusten dira, horietako 534 libreak, eta 280 publikoak (160 BOE, eta 120 tasatuak), baina sustatzaileak etxebizitza eraikiak emango ditu, ez lursail gisa, aurreko hitzarmenean adierazten zen bezala.

.-Lokaletarako ekipamenduak: aurreko hitzarmenak ez zuen horrelakorik jasotzen.
.- Oraingo hitzarmenak aurreikusten duenez, sustatzaileak Astigarragako Udalerako Kultur Etxe bat eraikiko du, eta 5.000.000€ zuzenduko ditu horretarako; aurreko hitzarmenak, ostera, ez zuen horrelakorik jasotzen.
.- % 10eko aprobetxamenduari dagokionez, oraingo hitzarmenak 9.000.000€ jasotzen ditu udaleko diru-kutxarentzat, eta aurreko hitzarmenak 0€ jasotzen zituen.

Udalerri honetako herritarren interesen onurarako diren arrazoi horiengatik, Plan Berezi hori onartzearen aldeko apustu

aprobación del Plan Especial de la A.I.U.9 Ergobia Ibilbidea es un acuerdo adoptado que favorece altamente al Municipio de Astigarraga y da cobertura al Convenio suscrito con el Promotor, donde se recogen todo unconjunto de equipamientos y servicios, que de no aprobarse en este Pleno, obligaría a revisarse el Convenio. Añade que el Convenio es notablemente mejor para el Municipio de Astigarraga que el suscrito en la legislatura 99-2003, y expone la comparación de los 2 convenios, destacando,entre otros,:
.- En materia de vivienda: la anterior legislatura contemplaban 625 viviendas de ellas 425 libres y para hacer 200 viviendas públicas se cedía la parcela al Ayuntamiento.
En este Convenio se prevee 800 viviendas de las que 534 son libres y 280 de régimen público(160 VPO, 120 tasadas) pero el promotor entregará construídas, no en parcela sin construir como decía el anterior convenio.

.-Equipamientos de locales: el anterior convenio no recoge este sí.
.- Este Convenio prevee que el Promotor construya una nueva Casa de Cultura para el Municipio de Astigarraga para la que destinará 5.000.000€, y en cambio el anterior convenio no recogía esto.
.- En materia de 10% de aprovechamiento este Convenio recoge para las arcas municipales 9.000.000€ y el anterior convenio recogía 0€

Por estas razones que benefician directamente los intereses de los vecinos de este Municipio hemos apostado fuerte por aprobar este Plan Especial.

Finalmente interviene el Alcalde-Presidente quien señala que el acuerdo adoptado en el Pleno de hoy es un acuerdo que favorece los intereses generales del Municipio de Astigarraga por el conjunto de nuevas dotaciones,por

handia egin dugu.

Azkenik, alkate-lehendakariak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: gaurko Osoko Bilkuran hartutako erabakia Astigarragako Udalerriaren interes orokorrei mesede egiten dien erabakia dela, hornidura berri guztiengatik, eraikiko diren etxebizitza publikoengatik, berdegune berriengatik, oinezkoentzako pasealeku berriengatik, eta Kultur Etxe berriarengatik, eta Hirigintza Batzordeko Lehendakariak azaldu dituen alderdi guztiengatik. Horrez gain, garapen berri hori modu globalean gauzatuko delako pozik dagoela ere adierazi du, Plan Berezian planifikaturik baitago, eta ez lehen bezala, aldaketa puntual baten bitartez, Arau Subsidiarioek aurreikusten zituzten 165 etxebizitzetatik, 625 etxebizitza eraikitzera aldatu nahi baitzen; Foru Aldundiak berak atzera bota zuen asmo hori, eta horrelako hazkuntza eragin baino lehen, Arau Subsidiarioen bitartez Udalerriaren globaltasuna aztertu behar zela exijitu zuen. Hori guztia da Korporazio honek egin duena eta gaurko osoko Bilkuran erabaki duguna.

Ez Ohiko osoko bilkura denez gero, puntu horrekin amaitutzat emango dut Osoko Bilkura hau.

las viviendas en régimen públicos que se van a construir, nuevas zonas verdes, nuevos paseos peatonales , nueva Casa de Cultura,.. y todos los aspectos que han sido expuestos por el Presidente de la Comisión de Urbanismo. Manifiesta además su satisfación porque este nuevo desarrollo se va a realizar de un modo global, planificado en el Plan General y no como antes, donde a través de una modificación puntual, donde las Normas Subsidiarias prevía contruir 165 viviendas se quería pasar a 625 viviendas, pretensión que fue rechaza por la propia Diputación Foral y que exigió que antes de provocar semejante crecimiento debería estudiarse la globalidad del Municipio a través de una revisión de las NNSS.. Esto es lo que esta Corporación ha hecho y hemos aprobado en el Pleno de hoy.

Por ser un pleno extraordinario con este punto doy por finalizado el Pleno y levanto la sesión.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2008ko iraila 19

Astigarragako Udala

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari Kontu-hartzailea**